

# Getxo >MEETING<



**Irailak 23**

**Erabakiak hartzeko angelu itsurik gabeko ispilu bat behar da**

Formatu presentzialera itzultzea zeharo eragingarria izan da guretzat. Gainera, abian jarri dugu geure buruak adierazten diguna aditzen aritzea. Saio honen helburua erabakiak hartzen laguntzea zen eta, ildo horri jarraikiz, irudiak eta artea gogora ekartzeko oroitarazpen-ahalmenaz baliatu gara, GetxoPhoto Nazioarteko Argazki Jaialdia dela-eta espazio publikoan kokaturik egongo diren argazkiak erabiliz.

Zergatik?

Enpresa oro da hura sortu duen pertsonaren edo pertsonen isla. Onerako zein txarrerako. Barruko mugak eta ahalmenak negozio-ereduaren 360 gradutan azaleratzen dira.

Enpresaren garapenean, sustatzaileak ez du benetan behar duenaren beharrezko perspektiba; izan ere, autoan bezala, angeluitsuak daude, eta angeluitsuok ez dute osotasuna ikusteko aukerarik ematen.

Horregatik, bada, epairik emango ez duen ispilua behar dugu, errealitatea islatu besterik egingo ez duen ispilua alegia. Ispilua nork berak dioena entzuten duen pertsona bat izan daiteke, edo aholkulari bat, edota coach bat. Eta zergatik ez, artelan bat ere izan daiteke.

Garrantzitsuena isla hori jasotzea da. Eta, jakina, norbaitek une bakoitzean galdera egokiak egin diezazkizula.

‘Art Thinking at Work’ saioan, bakoitzak landu behar zuen gai horren helburua lantzen dugu, xede hori erdiesteko mugak, eta, beste alde batetik, gure nortasunaren zer alderdi edo zer jarrera jarri behar genuen abian prozesu horretan aurrera egite aldera.